



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de abril de 2018

Lehendakaritza

GOBERNUAK EKINTZA HUMANITARIOETARAKO 5,3 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

Gobernu-kontseiluak ekintza humanitarioetarako laguntzen deialdia onartu du gaur, garapenerako lankidetzaren kargura emango direnak; aurtan 5,3 milioi euro bideratuko dira guztira ekintza horietara.

Elankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatutako dituen aipatutako laguntzak. Hondamendi batean edo hori gertatu eta berehala egindako jarduerak humanitarioak laguntzea dute helburutzat, horrelako hondamendiek eragindako pertsonen bizitza salbatzeko eta sufrimendua arintzeko, bai eta era horretako egoeretan daudenen duintasuna eta eskubideak babesteko ere.

Zehazki, gaur onartutako laguntzak bi jarduerak-lerro hauetara bideratuko dira:

1.- Krisiek eta hondamendiek eragindako pertsonen oinarriko ondasunak eta zerbitzuak ematea xede duten larrialdi-proiektuetara. Laguntza horiek premiazko erreskate-jarduerak zein aterpea, edateko ura, elikagaiak eta osasun-arreta ematea hartzen dute barnean (txertaketa-kanpainak eta osasungarritasun- eta garbitasun-neurriak barne). Finantzaketa-lerro iraunkorra da eta, ondorioz, urte osoan dago zabalik; 2,4 milioi euroko aurrekontua du.

2.- Ekintza humanitarioko esparru-estrategietara, zentzu zabalagoan; horrelako ekintzen jarduerak ez dute hainbesteko presarik eta garapen, giza eskubide eta bake-eraikuntzarako oinarriak sustatzea dute helburutzat. Proiektu horien barruan errefuxiatu eta lekualdatuei laguntza iraunkorra ematea, berehalako krisiak arintzea eta hondamendiaren osteko hasierako errehabilitazioa daude, besteak beste. Halaber, hondamendi batean edo hori gertatu eta berehala egin beharreko bestelako jarduerak ere sartzen dira, hondamendiak prestatu eta prebenitzeko, gatazkei aurrea hartzeko, bakea eraikitzeko eta giza eskubideak babesteko. Jarduerak-lerro honek 2,9 milioi euroko aurrekontua du.

Bi lerrotan, Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzaren eragileak (GGKEak, etab.) dira laguntzen onuradunak.

Enplegua eta Gizarte Politikak

2,7 MILIOI EURO GAZTEENTZAKO LANBIDE-HEZIKETA ALTERNANTZIAN PROGRAMARAKO (HEZIBI)

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzen deialdiaren berri eman dio Gobernuari gazteentzako lanbide-heziketa alternantzia programa (*Hezibi*) finantzatzeko. 2018an 2.690.253 euro izango dira, 2017ko 1,47 milioi euroen aldean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako programa honen bitartez diru-laguntzak zuzenduko dira 2018 honetan lanbide-heziketako ikasleek edo langabezian dauden gazteek formazioa jaso dezaten lan ordaindu bat burutzen duten bitartean.

Programa hau lanbide-heziketako ikasleei eta profesionaltasun ziurtagiriarentzako ikasten ari diren gazte langabeei zuzentzen zaie, betiere alternantzia-erregimenean enpresan ordaindutako lana egiteko.

Ondokoek eska ditzakete diru-laguntzak: enpresek, pertsona fisikoek edo juridikoek, lanlekuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituztenek, baita Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako Prestakuntza-erakundeek ere.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 807.500 INBERTITUKO DITU EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN SUSTATZEA HELBURU DUTEN PROIEKTUAK LAGUNTZEKO

- **Diru-laguntza lerro honek bi modalitate ezartzen ditu eta iaz 67 egitasmo diruz lagundu ziren**

Gobernu Batzordeak 807.500 euroko kontu-saila onartu du, bere gaurko saioan, euskara ingurune digitalean sustatu, garatu eta normalizatzeko. Aurrekontu honen bitartez diru-laguntza deialdi bat jarriko da abian eta ingurune digitalerako euskarazko egitasmo berriak zein aurretik martxan dauden proiektuak diruz lagunduko dira. Iazko deialdiaren bidez 67 egitasmo diruz lagundu ziren.

Deialdiaren diru gehiena egitasmo berriak bultzatzera bideratuko da, 593.500 euro, hain zuzen. Horrela, deialdiaren lehen modalitatearen bidez, Interneterako euskarazko webgune edo beste formatu berritzaile batzuk (webserie, webirradi, podcast...) diruz lagunduko dira, baita mugikorrerako euskarazko aplikazioak ere.

Bigarren modalitatearen bidez, 214.000 euro bideratuko dira ingurune digitalean lehendik abian dauden euskarazko egitasmoak eguneratzera, "edukiak zein funtzionalitate berriak gehituz". Aurtengo deialdiak iaz abian jarritako bideari ekingo dio. Izan ere, aurreko deialdietako lau multzoak (webgune berriak sortzea, lehendik abian zeuden webguneak egokitzea, software berria sortzea eta lehendik sortutako softwarea egokitzea) desagertu ziren iaz, eta aurtengo bi multzo berri horiek bilakatu ziren.

2017. urteko deialdiaren bidez 67 egitasmo diruz lagundu dira, eta horren eragina egitasmo berrietan antzeman da bereziki, formatu berriei ere lekua eginez (webserieak edota chatbot-ak). Horrez gain, lehendik ziren webguneak edo atalak eguneratu dira, eta euskarazko eduki berriak ere sortu dira. Azkenik, nabarmendu behar da 2017ko diru-laguntzen bidez Internet bidezko aplikazioak ere ugartu zirela.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 150.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU EUSKADI LITERATURA SARIEN 2018KO EDIZIOA BULTZATZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zazpi modalitateetako epaimahaia osatuko dituzten kideak ezagutzera eman ditu**

Gobernu Batzordeak, gaur egin duen bilkuran, 2018ko Euskadi Literatura Sariak arautu eta horietarako dei egiten duen agindua onartu du. Joan den urtean bezala, sariak zazpi modalitate izango dituzte eta irabazle bakoitzak 18.000 euroko saria jasoko du. Diru-kopuru horri beste 4.000 euro gehituko zaizkio saritutako lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzen badira.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatzen dituen Euskadi Literatura Sariak modalitate hauek dituzte:

- Euskarazko literatura.
- Gaztelaniazko literatura.
- Euskarazko haur eta gazte literatura.
- Euskarazko literatura itzulpena.
- Literatura lanaren ilustrazioa.
- Euskarazko saiakera.
- Gaztelaniazko saiakera.

Sari hauek 18.000 euro gordineko hornidura izango dute modalitate bakoitzerako eta diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie. Saridunek, era berean, Jose Ibarrola Bellidok eginiko 'Liburu Nabigatzailea' eskulturaren ale zenbakitua jasoko dute. Halaber, saritutako lanen egileek (euskarazko itzulpenaren modalitatean izan ezik) beste 4.000 euro gordin jasoko dituzte, baldin eta saritutako lana jatorrizkoaz bestelako hizkuntza batean argitaratzeko kontratua 2019ko abenduaren 31 baino lehen sinatzen badute.

Hauek izango dira modalitate bakoitzeko epaimahaiko kideak:

- Euskarazko literatura: Asier Serrano Lasa, iazko sariaren irabazlea; Itxaro Borda Charrion, Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) proposatutako kidea; Jon Kortazar Uriarte, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Pello Otxoteko Vaquero; eta Castillo Suarez Garcia.
- Gaztelaniazko literatura: María Eugenia Salaverri Garcia, Euskadiko Idazleen Elkarteak (AEE-EIE) proposatutako kidea; Isabel Muguza Roca, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Joseba Iñaki Esteban Azurmendi; Jon Bilbao Lopategui; eta Jose Fernández de la Sota.
- Euskarazko haur eta gazte literatura: Lore Agirrezabal Pertusa, Galtzagorri elkarteak proposatutako kidea; Elisabet Mas Elizondo,

Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteak (ALDEE) proposatutako kidea; Mikel Aierbe Sudupe, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Irati Zaldúa Ortiz de Guzmán; eta Imanol Mercero Etxebarria.

- Euskarazko literatura itzulpena: Idoia Santamaria Urkaregi, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) proposatutako kidea; Gotzon Lobera Revilla, Euskaltzaindiak proposatutako kidea; Gidor Bilbao Telletxea, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Bakartxo Arrizabalaga Labrousse; eta Isabel Etxeberria Ramirez.
- Literatura lanaren ilustrazioa: Mikel Valverde Tejedor, iazko sariaren irabazlea; Elisabeth Pérez Fernández, Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak (APIE) proposatutako kidea; Jon Martín Colorado, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Enrique Martínez-Inchausti Portu; eta Ainara Azpiazu Aduriz.
- Euskarazko saiakera: Arantxa Urretabizkaia Bejarano, iazko sariaren irabazlea; Alberto López Basaguren, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Monika Madinabeitia Medrano, Mondragon Unibertsitateak proposatutako kidea; Agurtzane Elordui Urkiza; eta Mitxelko Uranga Alvarez.
- Gaztelaniazko saiakera: Ainhoa Fernández de Arroyabe Olartua, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako kidea; Juan Manuel Díaz de Guereñu Ruiz de Azua, Deustuko Unibertsitateak proposatutako kidea; Beñat Arginzoniz Cebreiro; Maria José Martínez Gutiérrez; eta Nerea Aresti Esteban.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak udazkenean ezagutzera emango ditu sari hauen irabazleak; azaroan egingo den ekitaldi batean emango ditu sariak.

Lana eta Justizia

GOBERNUAK 2019RAKO JAIEGUNEN EGUTEGIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2019. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu du.

2019an, urte osoko igandeak eta jarraian ageri diren egunak jaieguntzat hartuko dira lan-ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan –ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.
Martxoaren 19a, San Josef.
Apirilaren 18a, Ostegun Santua.
Apirilaren 19a, Ostiral Santua.
Apirilaren 22a, Pazko Astelehena.
Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.
Uztailaren 25a, Done Jakue.
Abuztuaren 15a, Andra Mariren Jasokundea.
Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.
Azaroaren 1a, Domu Santu eguna.
Abenduaren 6a, Konstituzioren eguna.
Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Lan-ondorioetarako tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko. Lana eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkuren proposamenez. Egun horiek berdinak izan daitezke edo ez lurralde historikoetako udalerrri guztietan.

Udalek, bada, proposamenak egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzara bidaliko dituzte. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, Gobernu Kontseiluak gaur onartutako dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Presidencia

EL GOBIERNO DESTINARÁ ESTE AÑO 5,3M DE EUROS A AYUDAS A EMERGENCIAS Y ACCIONES HUMANITARIAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de ayudas a emergencias y acciones humanitarias con cargo a la cooperación para el desarrollo, que este año suma un total de 5,3 millones de euros.

Las ayudas serán gestionadas a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y tienen por objeto contribuir al esfuerzo por salvar la vida y aliviar el sufrimiento de las personas afectadas por desastres y crisis humanitarias, incluyendo los aspectos de prevención y protección que hacen referencia a la dignidad humana, los derechos humanos y los principios humanitarios.

En concreto, la convocatoria hoy aprobada irá destinada a dos líneas de actuación:

1.- Línea de financiación permanente, abierta durante todo el año y dotada con 2,4 millones de euros. Se incluyen en esta línea proyectos de emergencia para el rescate de personas afectadas por desastres o crisis y el suministro de abrigo, agua potable, alimentos y atención sanitaria. Se incluyen además, aquellos proyectos de acción humanitaria orientados a la preparación y prevención de desastres, mitigación y rehabilitación posdesastres y la construcción de la paz y la protección de los derechos humanos y el Derecho Internacional Humanitario.

2.- Línea de estrategias-marco de acción humanitaria, de concurrencia competitiva y dotada con 2,9 millones de euros. A través de las estrategias-marco, organizaciones especializadas en el ámbito humanitario atienden crisis olvidadas. Se trata de acciones de más larga duración y presupuesto que acompañan a poblaciones afectadas por crisis con menor cobertura y, por lo tanto, con necesidad de una respuesta de mayor envergadura e impacto.

En ambos casos, los receptores de estas ayudas son los agentes de cooperación radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Empleo y Políticas Sociales

2,7 MILLONES PARA EL PROGRAMA DE FORMACIÓN Y TRABAJO EN ALTERNANCIA PARA JÓVENES (HEZIBI)

La consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, ha informado al Gobierno de la convocatoria de ayudas de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para financiar el programa de formación y trabajo en alternancia para jóvenes (*Hezibi*), cuya dotación en 2018 asciende a 2.690.253 euros frente a los 1,47 millones de 2017.

Este programa gestionado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, consiste en la concesión de subvenciones durante el año 2018, destinadas a la financiación de las acciones formativas dirigidas a estudiantes de formación profesional y a personas jóvenes desempleadas, en régimen de alternancia con la actividad laboral retribuida en la empresa.

El programa se dirige a estudiantes de formación profesional y a personas jóvenes desempleadas que cursen certificados de profesionalidad en régimen de alternancia con la actividad laboral retribuida en la empresa.

Podrán solicitar subvenciones las empresas, personas físicas o jurídicas, que cuenten con centros de trabajo radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las entidades de Formación radicadas en dicha Comunidad Autónoma.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA INVERTIRÁ 807.500 EUROS EN APOYAR PROYECTOS DIRIGIDOS A IMPULSAR EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL

- **Esta línea de ayudas contempla dos modalidades y el año pasado sirvió para ayudar económicamente a 67 proyectos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su sesión de hoy, una partida de 807.000 euros para promover, desarrollar y normalizar el uso del euskera en el entorno digital. A través de esta línea de ayudas se impulsará una convocatoria de ayudas con el fin de financiar tanto proyectos nuevos en euskera destinados al entorno digital como proyectos que previamente se encontraban en marcha. Esta línea de ayudas permitió el año pasado ayudar económicamente 67 proyectos relacionados con el entorno digital.

La mayor parte del presupuesto de estas ayudas, un total de 593.500 euros, irá destinada a promover nuevos proyectos en el entorno digital. Así, la primera de las modalidades de esta línea de ayudas se destinará a apoyar económicamente proyectos relacionados con páginas web, distintos formatos innovadores en euskera (series web, radios web, podcasts, etc) o aplicaciones.

Además, a través de una segunda modalidad se destinarán 214.000 euros a la actualización de proyectos en euskera en el entorno digital previamente en funcionamiento, “añadiendo contenidos y funcionalidades nuevas”. La convocatoria de este año mantiene la nueva estructura que el pasado año se puso en marcha al sustituir los cuatro apartados que existían previamente (creación de páginas web nuevas, adaptación de páginas web preexistentes, creación de software nuevo y adaptación de software preexistente) por los dos que actualmente existen.

A través de la convocatoria de ayudas de 2017 el Departamento apoyó económicamente 67 proyectos, entre los que sobresalieron iniciativas novedosas y nuevos formatos (series web o programas de tipo chatbot). Además, a través de estas ayudas se han renovado páginas y apartados web, al tiempo que se han generado nuevos contenidos. Cabe remarcar, además, que la convocatoria de 2017 también permitió impulsar nuevas aplicaciones para teléfonos móviles.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO APRUEBA UNA PARTIDA DE 150.000 EUROS PARA IMPULSAR LA EDICIÓN 2018 DE LOS PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

- **El Departamento de Cultura y Política Lingüística ha dado a conocer las personas que conformarán los jurados de las siete modalidades**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy la orden a través de la cual se regulan y convocan los Premios Euskadi de Literatura 2018. Al igual que el pasado año, estos premios contarán con siete modalidades y cada ganador recibirá un premio de 18.000 euros, a los que se sumarán otros 4.000 euros en caso de que sus obras se traduzcan a otras lenguas.

Los premios Euskadi de Literatura, impulsados por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, cuentan con las siguientes modalidades:

- Literatura en euskera.
- Literatura en castellano.
- Literatura infantil y juvenil en euskera.
- Traducción literaria al euskera.
- Ilustración de obra literaria.
- Ensayo en euskera.
- Ensayo en castellano.

Estos galardones estarán dotados con 18.000 euros brutos para cada una de las modalidades, cantidad que será entregada a las y los autores de las obras que resulten premiadas. Las personas galardonadas recibirán también un ejemplar numerado de la escultura 'Libro Navegable' realizada por José Ibarrola Bellido. Asimismo, el premio conllevará para las y los autores de las obras premiadas (excepto en la modalidad de traducción al euskera), la concesión de 4.000 euros brutos tras la formalización antes del 31 de diciembre de 2019 de un contrato de edición de la obra premiada en un idioma diferente al original.

Los miembros del jurado por cada modalidad serán los siguientes:

- Literatura en euskera: Asier Serrano Lasa, ganador del premio el año anterior; Itxaro Borda Charrion, persona propuesta por la asociación Euskal Idazleen Elkarte (EIE); Jon Kortazar Uriarte, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Pello Otxoteko Vaquero; y Castillo Suarez Garcia.
- Literatura en castellano: María Eugenia Salaverri Garcia, persona propuesta por la Asociación de Escritores de Euskadi (AEE-EIE); Isabel Muguruza Roca, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Joseba Iñaki Esteban Azurmendi; Jon Bilbao Lopategui; y Jose Fernández de la Sota.

- Literatura infantil y juvenil en euskera: Lore Agirrezabal Pertusa, persona propuesta por la asociación Galtzagorri; Elisabet Mas Elizondo, persona propuesta por la Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación (ALDEE); Mikel Aierbe Sudupe, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Irati Zaldua Ortiz de Guzman; y Imanol Mercero Etxebarria.
- Traducción literaria al euskera: Idoia Santamaria Urkaregi, persona propuesta por la asociación Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE); Gotzon Lobera Revilla, persona propuesta por Euskaltzaindia; Gidor Bilbao Telletxea, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Bakartxo Arrizabalaga Labrousse; y Isabel Etxeberria Ramirez.
- Ilustración de obra literaria: Mikel Valverde Tejedor, ganador del premio el año anterior; Elisabeth Pérez Fernández, persona propuesta por la Asociación Profesional de Ilustradores de Euskadi (APIE); Jon Martin Colorado, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Enrique Martínez-Inchausti Portu; y Ainara Azpiazu Aduriz.
- Ensayo en euskera: Arantxa Urretabizkaia Bejarano, ganadora del premio el año anterior; Alberto López Basaguren, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Monika Madinabeitia Medrano, persona propuesta por la Universidad de Mondragón; Agurtzane Elordui Urkiza; y Mitxelko Uranga Alvarez
- Ensayo en castellano: Ainhoa Fernández de Arroyabe Olartua, persona propuesta por la Universidad del País Vasco; Juan Manuel Díaz de Guereñu Ruiz de Azua, persona propuesta por la Universidad de Deusto; Beñat Arginzoniz Cebreiro; Maria José Martínez Gutiérrez; y Nerea Aresti Esteban.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco dará a conocer las y los ganadores de estos premios el próximo otoño; la entrega de los mismos tendrá lugar en una gala que se celebrará en el mes de noviembre.

Trabajo y Justicia

EI GOBIERNO APRUEBA EL CALENDARIO DE FIESTAS LABORALES PARA 2019

El Consejo de Gobierno ha aprobado el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el próximo año.

En 2019 tendrán la consideración de días inhábiles en el País Vasco a efectos laborales, retribuidos y no recuperables, todos los domingos del año y las festividades de:

1 de enero, Año Nuevo.
19 de marzo, San José.
18 de abril, Jueves Santo.
19 de abril, Viernes Santo.
22 de abril, Lunes de Pascua de Resurrección.
1 de mayo, Fiesta del Trabajo.
25 de julio, Santiago Apóstol
15 de agosto, Asunción de la Virgen.
12 de octubre, Fiesta Nacional.
1 de noviembre, Todos los Santos
6 de diciembre, La Constitución
25 de diciembre, Natividad del Señor.

Serán también inhábiles para el trabajo, retribuidos y no recuperables, otros dos días con carácter de fiestas locales, que se establecerán por los Delegados Territoriales del Departamento de Trabajo y Justicia, a propuesta del Pleno de los Ayuntamientos respectivos, pudiendo ser comunes o no en los diversos términos municipales de cada Territorio Histórico.

Los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas y remitirlas a la respectiva Delegación Territorial en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de la publicación, en el Boletín Oficial del País Vasco, del Decreto aprobado hoy por el Consejo de Gobierno.